Ezezagunak trenean... irakurtzen

Miren Billelabeitia (Mungia 1960). Euskal Filologian lizentziatua, Literatura Unibertsala eta Euskara eta Literatura irakasle izan da Mungiako Institutuan.

Irakurketak sorrarazi dion atseginak eta gazteengan literaturarekiko jakin-mina eragiteko gogoak bultzatu dute irakurketari buruzko pedagogian sakontzera eta literaturarekiko zaletasuna pizteko gogoetara. Hitzaldiak eta formazio jarduerak eman ditu Berritzegune, ikastetxe eta ikastaroetan literaturaren irakaskuntzaz eta solasaldi literarioez.

Argitalpenetan aipa daitezke: *Euskal literaturaren historia* (2003), *Lauaxeta. Oihartzunak* (2008), Esteban Urkiaga *Lauaxeta*ren antologia, eta irakurketa proiektu baten ondorioz, Mungia BHI institutuko ikasleekin *Aitita-amamen guda zibila* (2019).

2023an Euskadi Saria irabazi zuen *Norberak maite duena* liburuarekin (2022). Liburu horren itzulpena consonni argitaletxeak atera zuen 2025ean *Lo que una ama* izenburuaz.

Usoa Fullaondo eta Zuhar Iruretagoiena, Gure Artea Saria 2025, artisten lana laguntzeko poemak sortu ditu *Alto ánimo. Larga Alegría* liburuan (2025) eta urte bereko azaroan *Eguna hasteko olerkiak* argitaratu du irakurketa ozenaz eta poesiaren gozamenaz.

Argazkia: Lide Billelabeitia

Egilea **Miren Billelabeitia**
Zuzenketa **Izaskun Gracia** eta **Amelia Pérez**
Bildumaren diseinua **Rosa Llop**
Maketazioa **Olatz Goikouria Miñaur**
Azaleko irudia **Pep Carrió**
Barruko irudiak **Archivo Histórico Ferroviario de la Fundación de los Ferrocarriles Españoles**
Galizian inprimatua **Cosmos Gráfico**

consonni argitalpenak
Mirasol Kondearen kalea, 13, LJ1D
48003 Bilbo
www.consonni.org

Lehen argitalpena:
2026eko urria, Bilbo
ISBN: 979-13-88471-01-8
Lege-gordailua: BI 01282-2026

Lan hau Creative Commons Aitortu-Ezkomertzia-la-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.
Testuen, edizioaren, itzulpenen eta irudien jabetza egileei dagokie.

© Barruko irudiak: Archivo Histórico Ferroviario de la Fundación de los Ferrocarriles Españoles
Irudien iturria eta kredituak liburuaren amaieran kontsulta ditzakezu.

Lan honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren literatura-argitalpenetarako laguntza jaso du.

consonni argitaletxea Bilboko San Frantzisko auzoko kulturgune interdependente bat da. 1996az geroztik, kultura kritikoa ekoizten dugu, eta, gaur egun, hitz idatzia eta orobat xuxurlatua, entzuna, isildua eta deklamatua da argitaletxearen apustua: hitza ekintza bihurtua, hitza gorputz bihurtua. Bizi garen munduan eragitea eta hark ere gugan eragitea bilatzen dugu. Letra xehez idatzia eta aldaketa etengabean, izaki androgino eta polizefaloa da consonni, bi superbotere dituena: feminismoa eta entzumena. Distantzia laburretan jokatzen dugu.

FSC www.fsc.org
MISTOA
Papera | Basogintza arduratsuaren alde
FSC® C017606

Ezezagunak trenean... irakurtzen

Miren Billelabeitia

consonni

Eloisari

«Utzidazu zeure begiak berriz ikus ditzadan»
(Antzinako Mesopotamian,
oholtxo batean aurkitutako idazki zatia)

NASAN

Udaberri bukaerako liburu-azoka eta uda hasierako jaialdi kulturalen zurrumurrua inguruan erleen hegaldi distiratsua legez nabari dugun sasoian, izan ohi da kezkarik inoiz irakurzaletasun datuen egiatasunaz. Aspaldi honetan inoiz ezer irakurtzen ez duten herritarren herenak eragindako ardura kezka bihurtu da gizarteko kultura mailaz adi eta kulturan irakurketa zaletasunak duen garrantzia azpimarratzen dutenengan. Batzuen esanetan, Espainiako Kultura Ministerioko burua barne, ez irakurtzearen arrazoia astirik eza da. Zalantza dut, astia lortu, gorde, egiten dela uste dutenetarikoa naiz. Nire lagun batek ordea, ez du hainbesteko kezkarik. Bere ustez irakurtzen ez duten askok ez omen dagite, ez astirik ez dutelako, nahi ez dutelako baino; begiratzea baino ez omen dago zenbat lagun doazen metroan eta trenean telefonoari begira jolasten edo bideoklipak ikusten, ez irakurtzen liburua zabaldu eta irakurtzeko asti adina izango zuten unean.

Bere iritziak ukitua egin dit bihotzean entzun dudan bakoitzean, zeren ni, herritarrok, gazteek ere bai, gero eta gehiago irakurtzen dugula diogunen artekoa bainaiz; inoiz ez dela orain beste irakurri, euskaraz behintzat. Arazoa da lagunaren usteak sumindua eragin zidala lehen aldiz entzun nionean, eta nahigabea buruan bueltaka nerabilela, trenez, metroz ala autobusez bidaiatzen dudanean beti liburua poltsan daramaten horietakoa bainaiz bidaia laburra izanda ere. Argi daukat nire lagunaren buruan Hopper bezalako margolariek behin baino gehiagotan islatu duten treneko irakurlearen irudia dagoela eta irudi hori, Hopperren kasuan batez ere, baina baita beste margolari batzuen margo zein argazkietan erabat iradokitzaile egiten zaigula.

Aurton ea astero joan natzaio bakarrik bizi den izeko bati ikustaldi bat egiten trenez eta metroz. Inoiz baino gehiago eta sarriago bidaiatu dut trenez; lurrazpiko bultzian eta lurrazaletik doanean ere. Eta inoiz baino gehiago irakurri dut trenean bidaiatzen nintzela eleberrietan eta olerki bertsoetan aurrera nindoala; astiro batzuetan eta arnasa asaldaturik besteetan, bihotza lauhazka. Lurrazpiko burdinbidean aurrera gogoetatan eta ipuinetan ibili naiz, liburuan eta liburuetan zehar orriak zeharkatuz. Bidaia bikoitza izan da sarritan, edo anitza, lur gainean hasi eta gogoetan zein kontakizunetan barna egin dut, irudimenean eta inguruko irakurle lagunen begietan zehar.

Irakurleen urritasunaz arduraturik mintzo zitzaidan lagunaren kezka entzun eta egun gutxitara ere hala egin nuen. Igo bezain laster leku bila hasi zitzaizkidan begiak bizkor.

Jesarri eta irakur liburua zabaldu nuen. Emakume gazte bat igaro zen orduan nire ondotik eta pasabidearen beste aldean eseri, leiho ondoko tokian. Hark ere liburua atera zuela ikusi nuen betertzetik. Baginen bi. Eta nik nire lagunaren hitzak buruan. Hara! Elkartasun bitxia sumatu nuen bion artean lotura gozoa sortzen. Ingurukoak mugikorrari adi dauden artean uharte bakan ote gara batzuk? Izaro bakartiak agian? Ez nuke nahi, bitxi samarrak ematen dugun arren, eta ez dut ukatuko trenean zein metroan noala ez dudanik ingurura begiratzen, nire antzera liburuak altzoan zabalik dutenen bila. Ahizpak aurkitu ditugu horrelakoetan. Bururatu zitzaidan pasabidearen beste aldeko andereari begira, hori zela irakurzalearen egungo irudi nagusia, ez ni, hura baino: emakumea, gaztea, goi-mailako ikasketaduna, hiri girokoa eta urtean gutxienez hamar liburu irakurtzen dituena. Ez dakit zer irakurtzen ari zen: fikzioa ala fantasia; eleberria ala filosofia. Bost axola! Ikuspegi hark leihoaren beste aldean txondortzen ari ziren hodei ilunen zeruertza lasaitu zidan eta lotura gozoan besarkatu gintuen biok burbuila barean legez inguruko larriduratik babestuta.

Egun batzuk geroago, 2025eko udaberri bukaerako goizean, Bilboko Zazpikaleak geltokiko nasan metroaren zain nengoela, beste helmuga bat zuten bagoiak igaro ziren neure begi aurretik. Zutik nintzen nire garraioaren zain, begiak norabiderik gabe, finko zabalik aurrean nituen leihoez bestaldean eserita ziren bidaiarietako batzuek liburu bat eskuetan zutela ikusi nuenean. Lehenengo bat, gero beste bat…Bost zenbatu nituen hamasei eserlekudun bagoigunean. Zorion

betea hedatu zitzaidan barrenean, eta bekaizkeria apur bat ere bai. Bagoi hartan bidaiatu nahi nuen nik ere, giro lasaian. Baina, nire helmugara zihoana izan ez arren eta bidaia luzatuta ere, bagoira igo eta geltoki pare baterainoko bidai luzapena egin nezakeela erabaki orduko, abian jarri zen bultzia eta alde egin zuten irakurleek astiro-astiro bere eleberri eta ipuinak, olerki eta bidai liburuak eskuartean zituztela. Oroitu nintzen halakoan, trenean eta metroan irakurlerik ikusten ez zuela aipatu zidan adiskideaz eta bururatu zitzaidan, nire bidaietan irakurtzen ikusten nituen lagunak zenbatuko nituela aurrerantzean. Baietz guztietan baten bat izan!

Horrela, zorion-izpi horri jarraiki, oharrak hartu izan ditut liburuen bihotzetan ezkutaturiko orri-zatietan; nire irakurketez eta ingurukoen liburuen izenburuez. Eguneroko bat osatzen joan naiz urte oso bateko asteroko bidaietan aurrera. Inolako asmorik ez aurreikuspenik gabe hasieran, jakin-min hutsez. Hala sartzen nintzen burdinsugearen sabelean, bertan aurkituko nuen irakurle lagunaren bila, pozik asmaketan ikusiko nituen irakurketa berriak begiratzeko gogoz, haiek eskainiko zizkidaten lotura eta bidai berrietarako bideak zabaldu nahian. Errepikakorra eman lezake bidaialdi bakoitzeko testu bat idazteak beti bide berdina edo oso antzekoa egiten delarik, baina bere antzekotasunean eta oihartzun errepikakorrean ere beti izan da desberdin, egunero bitxi, liburuak zabaldu dizkidan ateak gero eta aberatsagoak izan baitira, *bide barrijak* olerkari euskaldun batek zioenez. Liburu bakoitza, irakurketa bakoitza, bidai berri bateko aukera berria izan da aldian-aldian, bultzi begiez bestaldean diga-

roen ikuspegiaz lotura egiteko aukera ibili gabea ordura arte, liburuen orrietako begietatik inguruari so egiteko abagune bitxia. Nire aukerak dira bertan, eguneroko honetan, nire irakurketa aukerak eta zaletasunak, baina baita bidaiotan aurkitu ditudan lagun irakurleen eskaintzak ere, bere eskuetan idoro ditudan elkarrizketa aukera eta zorion-izpi zinez atseginak. Irakurketak nire begietatik eta bidai lagunen begietatik osatzeko bideen lur berriak.

* * *

Azaleko irudia

Pep Carriók, diseinatzaile grafiko gisa egiten duen lana partekatzen du, bereziki argitalpen- eta kultura-esparrura bideratua, artista plastiko gisa egiten duen lanarekin. Bi alderdi horiek argitalpen eta erakuseta ugarietan islatu dira, non bere obraren nortasun artistiko, poetiko eta kontzeptual sendoa nabarmendu den.

Pep Carrió ideien diseinatzailea da, «pentsatzen dut, beraz, diseinatzen dut» esaera betetzen duten horietakoa.

Munduaren sorlekua bildumak bizitza pentsatzeko, sentitzeko eta adierazteko beste modu batzuk arakatzen ditu. Esanahi berri bat ematen diogu Courbeten margolan ezagunaren izenburuari, begirada feminista eta ironiko batetik, zientziaren, ekonomiaren, kulturaren eta lurraldearen arteko harremanean sakontzeko. Errealitateak espekulatzeko, fikzionatzeko eta disekzionatzeko literatura. Zurrunbiloan murgilduta, ideia kutsakorrak anplifikatzen eta hasieraren teoriak aktibatzen ditugu.

Aholkulari-taldea

Lagun baten urtebetetze-bazkari batean sortu zen bilduma hau, oharkabean, beste ahots batzuk itzultzeko eta argitaratzeko grinak bultzaturik. Hasierako espirituari leial izan nahian, edukien gaineko aholkulari-talde bat osatu genuen, ez aditu-batzorde murritz bat, baizik eta iritsi nahi genuen komunitate zabal eta askotarikoa islatuko zuen talde bat. Hala, elkarte ezsekretu bat eratu genuen, ezagutzak partekatzeko eta haien proposamenak entzuteko. Haietariko batzuk bilduma honetan argitaratzen dira, edo beste batzuetara egiten dute jauzi; beste batzuk ganbaran gordeta geratzen dira; beste batzuk ez dira sekula izango. Zuetariko askok ematen diguzuen babes eta aholkularitza eskuzabal eta sarritan informal hori aitortu nahi dugu. Beste inspirazio-iturri batzuen artean, 2025an honako pertsona hauek osatu dute edukiak proposatu dizkigun talde malgu hori:

Ixiar Rozas, Maielis González, Leire Milikua, Helen Torres, Maria Ptqk, Blanca de la Torre, Teresa López-Pellisa, Elisa McCausland, Rosa Casado, Pikara Magazine, Arantxa Mendiharat, Arrate Hidalgo, María Navarro, Remedios Vincent, Daniel García Andújar, Verónica Gerber Bicecci, Iván de la Nuez, Alicia Kopf, Maria Colera, Cabello/Carceller, Cristina Ramos González, Rosa Llop, Claudio Iglesias, Constantino Bértolo, Tamara Tenenbaum, Tania Pleitez, Marta Rebón, Rakel Esparza, Lilian Fernández Hall, Mariano Villarreal, Jorge Carrión, Beñat Sarasola, Katixa Agirre, Goizalde Landabaso, Uxue Alberdi, Carlos Almela, Txani Rodríguez, Mónica Nepote, Laura Casielles, Itzea Goikolea Amiano, Ana González Navarro, Mercedes Melchor, Luz Gómez, Georgina Monge López, Leire Bilbao, Elena Medel, Elisabeth Massana, Beñat Saratxaga...

www. consonni.org

Kultura kritikoa ekoizten eta argitaratzen dugu

Munduaren sorlekua

Ezezagunak trenean... irakurtzen Cosmos Gráfico inprimategian, Cambre, Galizia, 2026ko urriaren 13an inprimatu zen, eta egun horretan jaio ziren, besteak beste, Coralie van den Cruyce (1796), Parisen sortutako belgikar idazle, poeta eta feminista, emakumeek idazteko eta agertzeko zuten eskubidea defendatu zuena; Madalena Jauregiberri (1884), Zuberoako euskal idazle eta euskaltzalea, euskarazko irakurketaren eta transmisioaren alde lan egin zuena; Arna Bontemps (1902), afroestatubatuar poeta, eleberrigile eta liburuzaina, Harlemgo Pizkundearen memoria literarioa gorde eta zabaldu zuena; Takiji Kobayashi (1903), japoniar literatura proletarioko idazlea, langileen bizimoduak eta kapitalismo industrialaren bortizkeria nobelaren barrura eraman zituena; Izetta Roberts Cooper (1929), liberiar liburuzain eta idazlea, liburuen bidez herrialde baten oroimena antolatzen aritu zena; Richard Howard (1929), estatubatuar poeta eta itzultzaile queerra, frantsesezko literaturaren ate ugari ingelesezko irakurleei ireki zizkiena; Christine Nöstlinger (1936), Vienako idazle austriarra, haur eta gazte literaturan obedientziaren kontra eta irudimenaren alde idatzi zuena; eta Mollie Katzen (1950), estatubatuar sukaldaritza-liburuen egile eta ilustratzaile judua, koaderno kooperatibo bat etxeko sukalde askotako irakurgai bihurtu zuena. Beste hainbat hasiera-aktibatzaileren artean, hauek aipatzearren.